



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **UDALBATZAK 2017KO MARTXOAREN 13AN EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
Miren Itziar Arratibel Imaz  
Jesus Peñagarikano Labaka  
Arkaitz Fraile Quijera  
Jon Mikel Iglesias Otegui  
Irati Ozaita Azpiroz  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Victoria Rodriguez Feloaga

### **BITARTEKO IDAZKARI :**

*Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamahiruan** arratsaldeko zazpi eta erdiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ezohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

**1.- Donostiako Administrazioarekiko auzien 2 zk.ko epaitegiak 24/2014 prozedura arruntean eskatzen duen sententziaren betearazpenaren justifikazioaren onarpena**

**2.- Galde-eskaerak**

### **LEHENA:**

2017/03/13



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2 ZK.KO EPAITEGIAK 24/2014**  
**PROZEDURA ARRUNTEAN ESKATZEN DUEN SENTENTZIAREN BETERAZPENAREN**  
**JUSTIFIKAZIOAREN ONARPENA**

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2zk.ko epaitegiak 24/2014 prozedura arruntean (non erabakitzen zen Ibarra Udalen akordio bat, 396/2013 Alkate Dekretu bidez Andone Zabala andrearen alde emandako txoko aktibitate baimena alegia, legezkoa edo legez kontrakoa zen) emandako epaiaren betearazpena eskatzen du (2016ko uztailak 28ko epaia).

Udaleko Idazkariak honako txostena egiten du gai honen inguruan:

2016ko uztailaren 28an 148/2016 epaia eman zen, irmoa bilakaturik, 24/2014 ohiko prozeduraren baitan, eta 396/2013 alkate dekretuaren aurka. Dekretu horrek Andone Zabalarik txoko erabilera irekitze lizentzia ematen zion Ibarburuondo etxebizitzaren behe oinean dagoen lokalean.

Epaiak hauxe zioen:

“ Onartzea bere osotasunean Juan Jose Huerta Quintanillaren ordezkariak aurkezturiko administrazio-azietako errekurtsioa, epai honen lehen oinarrian jasotako ebazpenaren aurrean, zeina ezeztatzen baita ordenamendu juridikoaren aurkako izateagatik...”

Epaiak ez zuen zehazten nola bete behar zen agindua- soilik irekitze lizentzia ezeztatu behar zen - edota aginduaren testuak dioen bezala, ala , horrezaz gain, Ibarburuondo etxeko lokala hustuta, txoko/etxebizitza erabilera galarazte aldera, eta epaiaren esposizio-atalean oinarrituta.

Epaitzak jasotakoaren arabera, eta epaiaren esposizio-atalak dioena kontuan hartuta, alkateak hala aginduta, 2016ko abenduaren 1ean udal aparejadoreak txostena egin zuen. Txosten horretan nabarmentzen ziren txoko erabilera zuzenduriko elementuak (1 agiria).

Txosten horren helburua zen argitzea zein elementuk uzten zuten txoko erabilera izaten, izan ere, epaiaren esposizio-atalak modu orokorrean aipatzen zituen. Horrela dio zuzenbideko laugarren oinarriak:

“.. Antzematen da lehen logela zena orain “estudio” bat dela bainugelarekin, non lan mahai bat eta sofa-ohel bat dauden. Argazkietan ikus daitekeenez, gela honen akaberak ez dira biltegi batekoak: tronadura zoruan, erradiadorea, errezelak...-Lokal bateko biltegi batean ez dauden bezalako akaberak “.

Txosten hori egitea beharrezko jo zen ezeztaturiko jardura bidera zezaketen elementuak ezabatzearen. Izan ere, udalarentzat oso zaila zen kontrola egitea, horrek eskatuko bailuke

2017/03/13



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

gutxienez hilean behin ikuskatzea egitea lokalean bertan sartuta (eta horrek ez du galarazten erabilera) edo erabilera horretako elementuak kentzea.

Udal aparejadorearen txostena ikusita, udalak, 2017ko urtarrilaren 12n hauxe erabaki zuen (2 agiria):

“ 1. Ofiziozko berrikuste espedientea hastea 396/2013 alkate dekretuaren inguruan. Dekretu horren bidez Andone Zabala Eceizari txokorako irekitze lizentzia eman zitzaion Ibarra Ibarburuondo etxearen behe solairuan.

Ebazpen honen kontra interesatuak ezin izango du errekurtsorik jarri, hau izapide hutsa baita.

2. Ematea ANDONE ZABALA EZEIZA and.ari 10 eguneko epea, ebazpen hau jakinarazten zaion hurrengo egunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako alegazio nahiz frogak aurkezteko, hain zuzen, Ibarra Ibarburuondo etxearen behe solairuko lokalean txoko erabilerarako irekitze lizentziaren ofiziozko berrikuste espedientearen inguruan.

Interesdunari jakinarazi zitzaion Udalbatzak harturiko erabakia 2017ko otsailaren 16an eta emandako epean alegazioak eta birjapen errekurtsioa aurkeztu zituen eduki berarekin (3 agiria).

Administrazio bidean aurkezturiko idatziekin batera epaitegian beste idatzi bat aurkeztu zuen interesdunak, epaiaren exekuzioko intzidentea premiatuz. Bai alegazioetan bai errekurtsioan aurkezturiko edukia berdina da.

Kasu guztietan hauxe eskatzen zuen interesdunak:

“-Ibarra udalak, 2017ko urtarrilaren 12ko osoko bilkuran harturiko hirugarren erabakia ezeztatzea, eta baliorik gabe uztea bere osotasunean.

- Inolako erabakirik ez gauzatzeko, eta bereziki, lokaleko elementurik ez kentzeko.
- Baliogabetzea ofiziozko berrikuste espedienteari ekiteko erabakia, baliorik gabe utziz.
- Beste ebazpen bat ematea eta sententziaren edukia bere horretan exekutatzeko, alegia txoko erabilerako irekitze lizentzia ezeztatzea, bestelakorik gabe.”

Udal Idazkariak honako proposatzen du:

“Lehena.- EZESTE A BERE OSOTASUNEAN ANDONE ZABALA ECEIZA and.ak aurkezturiko birjapen errekurtsioa , hain zuzen,2017ko urtarrilaren 17ko osoko bilkuran erabakitako ofiziozko berrikuste espedientearen baitan; horren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen baitzaio Ibarra Ibarburuondo etxebizitzaren txoko lizentziaren inguruko erabakian. Arrazoia da bidezko ez izatea errekurtsioa aurkeztea.

2017/03/13



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Bigarrena.- PARTZIALKI ONARTZEA ANDONE ZABALA ECEIZA and.ak aurkezturiko alegazioak, hain zuzen ,2017ko urtarrilaren 17ko osoko bilkuran erabakitako ofizioko berrikuste espedientearen baitan, horren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen baitzaio. Ondoriorik gabe uzten da erabakia, ez delako bidezko irekitze lizentziaren ofiziozko berrikustea.

Hirugarrena.- BALIOGABETZEA eta ondoriok gabe uztea udalbatzak 2017ko urtarrilaren 17an harturiko erabakia, zeinaren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen zaion Ibarra-ko Ibarburuondo etxebizitzako txokoaren lizentzian.

Laugarrena.- EZEZTATZEA 396/2013 alkate dekretua, 2013ko martxoaren 8koa, zeinaren bidez Andone Zabala and.ari irekitze lizentzia ematen zaion. Horren oinarria da 2016ko uztailaren 28ko 148/2016 epai irmoa, 24/2014 administrazio-auzietako errekursoaren baitan eta Donostiako Administrazio Auzien 2 epaitegiak emana.

Bosgarrena.- AGINTZEA txoko/etxebizitza erabilerako zenbait elementu kentzea , ezeztatu den titulu baten babespean eginiko exekuzio material gisa. Hauek dira elementu horiek:

Sukaldeko altzari eta etxetresna elektrikoak.

Interesdunari 3 HILABETEKO epea ematen zaio, jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, aipaturiko elementuak kentzeko.

Horrela egin ezean udalak egingo du exekuzio subsidiarioan eta interesdunaren kostura”.

Harturiko erabakien azalpen-zatian Andone Zabalak aurkezturiko alegazioei ematen zaie erantzun, eta ofiziozko berrikuste espedientearen hasierara ematen dira , hain zuzen, epai irmoa dagoelako, bete beharrekoa, eta horregatik ezeztatzen da lizentzia. Horrekin batera, epaia eta azalpen-zatian, modu orokorrean, jasotakoa zergatik bete behar den arrazoitzen da.

Horregatik, epaia eta azalpen-zatian, modu orokorrean jasotakoa zergatik bete behar den arrazoitzeko kontuan hartzen da Jurisprudentziak adierazitakoa, Auzitegi Gorenaren irizpidera bilduta epaiak exekutzeko moduari dagokionez. Goi mailako Auzitegiak baitio “ arlo juridikotik ezabatu behar dela lizentziak emandako titulua eta arlo materialetik kendu ezeztatu den titulu baten babespean ezegoki eraikitakoa”. Kasu honetan ere irekitze lizentzia ezeztatu egin da eta eremu materialetik kendu behar da desegoki eraikitakoa, nahi bada galarazi debekatu den erabilera .

Kasu honetan areago, irizpide hori jarraitu behar da, espedientearen egiaztatuta geratu diren aurrekarien arabera, elementu horiek kendu ezean txoko/etxebizitza izaten jarraitu baitaiteke.

2017/03/13



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Aurkezturiko dokumentu guztiak aztertu ondoren eta Udal Idazkariaren txostena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (6 BILDU eta 2 EAJ-PNV) honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENEGOA:** EZESTE A BERE OSOTASUNEAN ANDONE ZABALA ECEIZA and.ak aurkezturiko birjapen errekurtsua , hain zuzen, 2017ko urtarrilaren 17ko osoko bilkuran erabakitako ofiziozko berrikuste espedientearen baitan; horren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen baitzaio Ibarra lbarburuondo etxebizitzaren txoko lizentziaren inguruko erabakian. Arrazoa da bidezko ez izatea errekurtsua aurkeztea.

**BIGARRENGOA:** PARTZIALKI ONARTZEA ANDONE ZABALA ECEIZA and.ak aurkezturiko alegazioak, hain zuzen ,2017ko urtarrilaren 17ko osoko bilkuran erabakitako ofiziozko berrikuste espedientearen baitan, horren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen baitzaio. Ondoriorik gabe uzten da erabakia, ez delako bidezko irekitze lizentziaren ofiziozko berrikustea.

**HIRUGARRENGOA:** BALIOGABETZEA eta ondoriok gabe uztea udalbatzak 2017ko urtarrilaren 17an harturiko erabakia, zeinaren bidez ofiziozko berrikuste espedienteari hasiera ematen zaion Ibarra lbarburuondo etxebizitzako txokoaren lizentzian.

**LAUGARRENGOA:** EZEZTATZEA 396/2013 alkate dekretua, 2013ko martxoaren 8koa, zeinaren bidez Andone Zabala and.ari irekitze lizentzia ematen zaion. Horren oinarria da 2016ko uztailaren 28ko 148/2016 epai irmoa, 24/2014 administrazio-auzietako errekurtsuaren baitan eta Donostiako Administrazio Auzien 2 epaitegiak emana.

**BOSGARRENGOA:** AGINTZEA txoko/etxebizitza erabilerako zenbait elementu kentzea , ezeztatu den titulu baten babespean eginiko exekuzio material gisa. Hauek dira elementu horiek:

Sukaldeko altzari eta etxetresna elektrikoak.

Interesdunari 3 HILABETEKO epea ematen zaio, jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, aipaturiko elementuak kentzeko.

Horrela egin ezean udalak egingo du exekuzio subsidiarioan eta interesdunaren kostura”.

Harturiko erabakien azalpen-zatian Andone Zabalak aurkezturiko alegazioei ematen zaie erantzun, eta ofiziozko berrikuste espedientea hasia baliogabetzearen arrazoiak ematen dira , hain zuzen, epai irmoa dagoelako, bete beharrekoa, eta horregatik ezeztatzen da lizentzia. Horrekin batera, epaia eta azalpen-zatian, modu orokorrean, jasotakoa zergatik bete behar den arrazoitzen da.

2017/03/13



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Horregatik, epaia eta azalpen-zatian, modu orokorrean jasotakoa zergatik bete behar den arrazoitzeko kontuan hartzen da Jurisprudentziak adierazitakoa, Auzitegi Gorenaren irizpidera bilduta epaiak exekutatzeko moduari dagokionez. Goi mailako Auzitegiak baitio “ arlo juridikotik ezabatu behar dela lizentziak emandako titulua eta arlo materialetik kendu ezeztatu den titulu baten babesean ezegoki eraikitakoa”. Kasu honetan ere irekitze lizentzia ezeztatu egin da eta eremu materialetik kendu behar da desegoki eraikitakoa, nahi bada galarazi debekatu den erabilera .

Kasu honetan areago, irizpide hori jarraitu behar da, espedientean egiaztatuta geratu diren aurrekarien arabera, elementu horiek kendu ezean txoko/etxebizitza izaten jarraitu baitaiteke.

**SEIGARRENA:** Erabaki hau jakinarazi ANDONE ZABALA ECEIZA andreari.

Ez dago inolako galde-eskaerarik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamazazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.